

ERRADIOAKTIBITATEZ "SENDA" ZAITEZ



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

New Jersey (AEB), 1918. Radio Bailey Inc. laborategiek Radithor izeneko produktua merkaturatu zuten, "hildako bizidunentzat osabidea" lelo ezin egokia goarekin. Radithorrek ur destilatua eta radio-226 eta 228 elementuak zituen, biak oso erradioaktiboak. Produktuak bertute ikusgarriak zituen: dena sendatu eta betiko poza ematen omen zuen. Erosleak konbentzitzeko, erradioaktibitatea "ziurtatuta" zegoela nabarmen adierazi zuten flaska bertan.

1930ean Tho-Radia aurpegiko krema saltzen hasi ziren Frantzian; 100 gramo, 0,5 gramo torio kloruro eta 0,25 gramo radio bromuro zituen. Alemanian, aldiz, Doramad azaldu zen merkaturatua, erradioaktibitateari esker hortz-haginak eta oiak indartzen zituen hortzetako pasta. Erradioaktibitate dosiak txikiak ziren eta, ondorioz, produktua ez zen berez hilgarria; erabiltzaileei hortzen bat geratu ote zitzaizen ez dakigu.

Alemanian bertan, 1931n, Burk & Braun enpresak Radium Shokolade merkaturatu zuen, adin guztietako gozaleentzako txokolate erradioaktiboa.

Eta produktu sorta osatzeko, Vita Radium supositorioak atera zituen Coloradoko Home Products Companyk. Primerakoa omen zen sexu-grina berreskuratzeko, gorputzeko sistema guztiei mesede egiten zien eta, hori




Ezkerrean, Radithor sendagai erradioaktiboaren flaska. Alboan, Tho-Radia radioa zeukan kremaren iragarkia, sendagarri izateaz gain, edergarri ere ba omen zena.

THEODOR W. GRAY

gutxi balitz, hemorroideen aurka oso eraginkorra zen. Parean topatzen zuen guztia garbi zezakeen, literalki, kontsumitzailea barne.

Produktu erradioaktiboak merkatutik kentzeko prozesua ez zen berehalakoa izan; Radiumscope haurrentzako jokia 1942. urtea arte egon zen saltokietan. Baina 1932an produktuon gainbehera hasi zen, Radithorren kontsumitzaile sutsu eta ezagunena hil zenean.

Eben Byers (1880–1932) kirolari eta industrialari ezaguna 1927an hasi zen Radithor hartzen, osasunari mesede nabarmena egiten ziola sinetsita.



1930ean "sendagaia" hartzeari utzi zionerako, 1.400 botilatik gora zeuzkan edanak. Gorputza abzesuz josita zeukan, garezurra zulatzen ari zitzaion eta masailazurraren arrastorik ez zitzaion geratzen. 1932ko martxoaren 31n, komunikabideek "erradiazioak pozoituta" hil zela jaso arren, radioak eragindako askotariko minbiziek eragin zuten Byersen heriotza.

Material erradioaktiboaren arriskuez jabetzen eta neurriak hartzen hasteko balio izan zuen horrek. Byers, badaezpada, berunez estalitako hilkutxa batean ehortzi zuten. ■

Bisustua, hau da, martxoko kalenden aurreko bigarren seigarren eguna

Duela 2.000 urte inguru Julio Zesarrek juliotar egutegia ezarri zuenetik, lau urtez behin otsailak 29 egun ditu ohiko 28en orde.

Garai hartan, hileko lehen egunari kalendak esaten zioten, zazpigarrena nona zen, eta hamabosgarrena, aldiz, idusa. Otsailaren 28a esan ordez, antzinako erromatarrek *primum dies ante*

calendas martias esaten zioten data horri, martxoko kalenden aurreko lehen eguna, alegia. Hala, otsailaren 27a *secundum dies ante calendas martias* zen, martxoko kalenden aurreko bigarren eguna, hilaren 26a, berriz, hirugarren eguna, eta horrela gainerakoak.

Berrikuntza gauzatzeko, hau da, bisurtea lehenengoz ezartzeko, gaurko

otsailaren 23 eta 24aren artean, kalenden aurreko bosgarren eta seigarren egunen artean beste egun bat sartu zuten. Eguna osagarriari *bis sextus dies ante calendas martias* deitu zioten, martxoko kalenden aurreko bigarren seigarren eguna, eta egun hori zeukan urteari *bis-sextus* edo bisustua esango zitzaion handik aurrera. ■